



INSTALAZIO GIDAK - ZIURTAGIRIA MARTXAN JARTZEA

1.- NOLA ERABILI LEHEN ALDIZ ZIURTAGIRIA?

Zure ziurtagiria zure txartelaren txip kriptografikoan edo Token-ean kokatuta dago, eta horrek ziurtagiriaz bestelako beste erabilera batzuk ere baditu. Ziurtagiriak erabilera telematikoak eta on-lineako erabilerak izango ditu. Horietaz baliatzeko, elektronikoki identifikatu beharko duzu zure burua, zure txartelarekin eta PINarekin.

Horrez gain, txartelak euskarri plastikoa duenez gero, beste erabilera batzuetarako honako elementu teknologiko hauek izan ditzake: hurbiltasun-antena, sarbide murriztuko kontrolak gainditzeko; barra-kodea, irakurketarekin identifikatzen zaituzten zerbitzuetarako; itsasontzien jokoa; eta identifikazio-zenbakia, gaitutako erabiltzaileentzako arreta-zentroekiko eta -zerbitzuekiko harremanak eta kontsultak errazteko.

Token-a mota guztietako fitxategiak biltegitratzeko erabil daiteke, baita web-nabigatzaile eramangarri eta hurbiltasun-antena gisa ere.

2.- ZIURTAGIRIA MODU SINPLEAN INSTALATZEA

Zure ziurtagiria erabiltzeko, IZENPEren web-orritik (www.izenpe.com) deskarga dezakezun softwarea instalatu beharko duzu.

Jarrai itzazu adierazten dizkizun jarraibideak, eta, amaitutakoan, ordenagailua berrabiaraz ezazu. Une horretatik aurrera, eta txartel-irakurgailu batekin, zure ziurtagiri digitala erabil dezakezu. Gerta daiteke zure ordenagailuak txartel kriptografikoetako irakurgailua izatea. Haatik, halakorik izan ezean, kanpoko txartel-irakurgailu bat eskuratu eta instalatu beharko duzu. IZENPEren www.izenpe.com orrian eska dezakezu bat, eta egun gutxitan jaso ahal izango duzu etxean.

Zure ordenagailuko *hasi/programa guztiak* barran, zure ziurtagiriarekin jarduteko aukera emango dizun “Txartelaren kudeatzailea” kokatuta dagoen lekuan, **IZENPE** agertuko zaizu.



Ziurtagiria erabiltzeko, **PIN gako**a jasoko duzu. Gako hori 6 digituko zenbakia da, txartel kriptografikoa erabiltzen duzun bakoitzean sartu beharko duzuna. Ezkutuko zenbaki bat da, bankuko txartelek dutenaren antzekoa. Ez diozu inori eman behar, erabilera desegokiak saihesteko. Hori dela eta, hobe duzu gako horren ordez errazago gogoratuko duzun beste gako bat jartzea.

GAINERAKO BERARIAZKO GIDAK ETA ESKULIBURUAK KONTSULTA DITZAKEZU EDO IZENPE-REKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZKE 902 542 542 TELEFONOAN.